

**IRAGARKIA 2022. urteko ezohiko eta egonkortzeko salbuespenezko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik eratorritako hautaketa prozesuen deialdiari buruzkoa.**

FOMENTO DE SAN SEBASTIAN S.A.

2022ko abenduaren 13ko ohiko bilkuran hartutako Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez emandako ahalmenak baliatuz, zuzendari-kudeatzaileak 2022. urteko ezohiko eta egonkortzeko salbuespenezko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik eratorritako hautaketa prozesuen deialdia egingo du, prozesu hauen oinarri orokor eta espezifikoak onartuz.

Oinarri hauek 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratuko dira <https://www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa> atalean eta bertan egongo dira aipatu hautaketa prozesuetan parte hartzeko interesa duten pertsonen eskura.

2022. urteko ezohiko eta egonkortzeko salbuespenezko Enplegu Publikoaren Eskaintzak barne ditu jarraian adierazitako lanpostuak:

- **20/2021 Legeak, abenduaren 28koak, Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituenak, 2.1 artikuluan xedatutakoaren esparruan, oposizio-lehiaketa sistema bidez, hauek:**

LANPOSTUA	TALDEA	LANPOSTU HUTS KOPURUA
Garapen ekonomiko eta komertzio teknikaria	Teknikaria	4
		<b>4</b>

- **20/2021 Legeak, abenduaren 28koak, Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituenak, Seigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren esparruan, salbuespen gisa eta Enplegatutakoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 61.6 eta 7 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, lehiaketa sistema bidez, hauek:**

LANPOSTUA	TALDEA	LANPOSTU HUTS KOPURUA
Plan Estrategiko Zuzendaria	Teknikaria	1
Garapen ekonomiko eta komertzio teknikaria	Teknikaria	7
Administrazio eta Kudeeketarako teknikaria	Teknikaria	1
Administraria	Administraria	5
		<b>14</b>

Prozesu bakoitzerako eskaerak aurkezteko epearen hasiera Sozietatearen webgunean iragarriko da (<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa>).

Donostia, 2022ko abenduaren 16a

Zuzendari-kudeatzailea

Iñigo Olaizola Arcaute